

## **2020KO URTARRILAREN 21EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- BEASAINGO ODOLKI KOFRADIAREKIN ADOSTUTAKO HITZARMENAREN ONARPENA.
- 2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. ONDASUN LANDATARREN ATALA. 033-18 LURSAILAREKIKO ADIERAZPENA.
- 3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 4.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).  
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).  
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)  
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).  
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).  
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).  
José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

### **1.- BEASAINGO ODOLKI KOFRADIAREKIN ADOSTUTAKO HITZARMENAREN ONARPENA.**

Alkateak, San Martin eguneko ospakizunak antolatzeko, "Beasaingo Odolki Kofradia"-rekin adostutako hitzarmenaren berri ematen du, bere testua honako hau delarik:

“Alde batetik, Beasaingo Odolki Kofradia, xxx zenbakiko NA duen Martin Urkiola Asurmendi jaunak ordezkatuta.

Bestetik, xxx zenbakiko NA duen Joseba Izagirre Arozena jauna, Zegamako Udalaren ordezkari moduan eta bertako Alkate moduan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasuna dute eta

### ADIERAZI DUTE

**LEHENENGO.** Parte hartzaileek azoka jarduerak eta gastronomia jarduerak antolatu dituzte aurreko urteetan gutxienez azaroko asteburuetako egunen batean (larunbatean).

**BIGARRENA.** Aurreko hamar urteetan, azoka jarduerak 2012ko apirilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren arabera burutu dira, jarduerak data berean izatea ekiditeko, hedabideetan horien zabalkundea errazteko eta bide batez, bisitarien eta ferietako saltzaileen sakabanatzea saihesteko.

**HIRUGARRENA.** Entitate antolatzaileak tradizio eta komenentziazko irizpideetan oinarrituta jarduera orain arte izan den erreferentzia datak mantentzeko joera duenez, beharrezkotzat jotzen da datozen urteetako azaroko larunbatak banatu ahal izateko adostasun batera iristea. Horrela, entitate bakoitza jarduerak antolatzera bakarrik mugatuko da, izan ere, berak badaki sinatutako entitateen aldetik ez dela interferentziarik izango.

**LAUGARRENA.** San Martin egunak (azaroren 11) ordezkaturako bi ordezkariak burutu behar dituzten jarduerak antolatzeko jaiegun eredia ezartzen dute.

Azaldutakoa kontuan hartuta,

### ERABAKI DUTE

1.- Bi entitateek adostuta erreferentzia urteetan azaroan izango diren ospakizun egunak zehaztea.

	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
San Martin Feria-Zegamako Udala	13	12	11	9	15	14	13	11	10	9
Beasaingo Odolki Lehiaketa-Beasaingo Odolki Kofradia	6	5	4	2	8	7	6	4	3	2

2.- Zehaztutako data horiek bi entitateen organo eskudunek berretsi egin beharko dituzte.

3.-Hitzarmen hau indarrean egongo da 10 urtetan. Epe hori bukatzean (2030ko abenduan) Zegamako Udalak beste zirriborro bat egingo du eta beste aldeari erakutsiko dio eztabaidatu ahal izateko.

4.-Sinatu duten entitateek zehaztutako datak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute, eta jarduera hemen zehaztutako datak ez diren beste data batzuetara aldatzeko edo bertan behera uzteko asmoa balego, beste aldeari horren berri sei hilabete aurretik emateko konpromisoa ere hartzen dute.

5.-Era berean,entitateak saiatuko dira jarduera burutzeko zehaztutako aurreko astea eta esleipen hartzailearen hedabideen erabilera errespetatzen,tokiko hedabideetan izan ezik, beraietan interferitu gabe.”

Hitzarmena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazi denaren arabera, Zegamako Udalaren eta Beasaingo Odolki Kofradiaren arteko hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Udal honetako Alkate-Lehendakariari, Zegamako Udalaren ordezkari eta izenean adierazitako hitzarmena sinatzeko aginpidea ematea.”

## **2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. ONDASUN LANDATARREN ATALA. 033-18 LURSAILAREKIKO ADIERAZPENA.**

Espedientea ikusirik.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ondasun Landatarren ataletik, Udalaren izenean dagoen lur zati batean eragina duen erreklamazio bat aurkeztu dela jakinarazi dela adierazten du Alkateak.

Zentzu horretan gaur egun Udalaren izenean agertzen den 18. Poligonoko 033. Partzelarekiko, erreklamazio egileak lur zati hori berea dela dio, eta, era berean, agiriak aurkeztu ditu hori azaltzeko.

Alkateak adierazten du, erreklamazio horren berri bazuela Udalak, eta horren azterketa eta aurrerakinak ikusirik, eta bereziki, Ondasun Landatarren ataletik helarazitakoaren arabera, erreklamazioa onargarria dela iritzi daitekeela.

Zentzu horretan, udalaren izenean agertzen den 18-033 lursailaren kokapena pixka bat desplazatuta dagoela irizten da, eta seguruenik desplazamendu hori poligonoko banatzen dituen lerroaren kokapenari dagokio.

Ondorioz, erreklamazioa onartuz (Foru Aldunditik ohartarazten da eskaerari erantzuna ematen ez bazaio automatikoki izen aldaketa egingo dela), udal ondasunaren inbentarioko fitxa egokitzea proposatzen da, Ondasun Landatarren ataletik jasoko diren irizpideen arabera.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ondasun Landatarren ataletik jakinarazitakoaren arabera, 18-033 lursailarekiko aurkeztu den erreklamazioa onartzea, eta horrenbestez, izen aldaketa bideratu dadila onartzea.

Bigarrena.- Udal Ondasunen Inbentarioan dagozkion aldaketak, zuzenketak edo egokitzapenak bideratzea, Ondasun Landatarren ataletik jasoko diren irizpideen arabera.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

### **3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 07/1219 erabakia, abenduaren 30ekoa, Jose Ramon Ormazabal Alustizari "Arrano Talleres Electromecánicos S.L." enpresaren ordezkari eta izenean, 14 E-F eta 14M pabilioietan, bi edukiontzi-zulo egiteko baimena emanez.
- 08/1219 erabakia, abenduaren 30ekoa, 2019ko San Bartolome jailetan garbiketa bereziengatik jarduera iraunkorra duten tabernei ezartzen zaien tasen kitapena onartuz.
- 01/0120 erabakia, urtarrilaren 7koa, arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko baimen administratiboa berritzea onartuz.
- 02/0120 erabakia, urtarrilaren 7koa, arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko baimen administratiboa berritzea onartuz.
- 03/0120 erabakia, urtarrilaren 14koa, Hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapen zerrenda onartuz.
- 04/0120 erabakia, urtarrilaren 14koa, Lurkide Hondalanak S.L. enpresari "11. Eremuko (Olaberria) indusketa selektiboaren planaren barnean jasotako lanak" burutu ondoren, enpresak berme bezala aurkeztu zuen 9.439,00 euroko abala itzultzea erabakiz.
- 05/0120 erabakia, urtarrilaren 14koa, 36 zenbakidun fakturen erlazioa (abendua azkena); guztira 195.690,26 euro, onartuz.
- 06/0120 erabakia, urtarrilaren 16koa, baserrian igogailua jartzeko baimena emanez.
- 07/0120 erabakia, urtarrilaren 16koa, Maderas Garmendia S.L.ri, egurra ateratzeko lanak bideratzeko, aurkeztutako bermeak itzultzea erabakiz.
- 08/0120 erabakia, urtarrilaren 16koa, Aitamarren Zaharra 4 etxeko atzealdeko fatxadari dagoen txabola berritzeari buruzkoa.
- 09/0120 erabakia, urtarrilaren 16koa, Elizalde 4-behea etxeko lokalari, pertsianak instalatzeko baimena emanez (autokarabana gordelekurako).

### **4.- GALDE ERANTZUNAK.**

- Bilkurakideak, zenbait txakurren egoera eta portaera dela eta azken egun hauetan

udalean jasotzen diren idatzi eta kexei buruz eztaibatzen dute. Zentzu honetan, Alkateak gai hauen inguruan bideratutako bilera eta hausnarketan berri ematen du, bilkurakideak, sortzen diren arazoak konpontzeko neurriak aztertu eta bideratu beharko direla adierazten dutelarik.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) adierazten du, kioskoa dagoen plazan okindegira produktuak zekartzan ibilgailu bat aparkatzeagatik, Ertzaintzak abisua eman ziola bere gidariari. Alkateak adierazten du, dagokion arduradunarekin hitz egingo duela gai hau argitu eta lan horiek arazorik gabe bideratu ahal izateko. Nolanahi ere, Alkateak adierazten du ere, udalaren aldetik plaza horretako zorua ibilgailuak sartzen direnean asko kaltetzen dela, eta horrenbestez, sarrera horiek ez egitea komeniko litzatekeela. Zentzu horretan, bilkurakideak, gai hau aztertuko dela adierazten dute.
- Alkateak adierazten du Txarapeko parkean kamioi batek pareta bota ondoren, aseguruaren bidez hau kontzeko izapideak bideratu direla eta lanen aurrekontua ere onartu dela.
- Alkateak adierazten du haurreskolatik eskaera batzuk egin zirela urte hasieran eta horiek bideratu direla. Zentzu horretan Julian Iraola Lapizondo zinegotziak (Zegama Lantzen) horiek azaltzen ditu. Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) bestalde adierazten du, erabiltzaileak **psikomotrizitatea emateko zenbait lanen zain daudela. Alkateak adierazten du, zaila dela lan horiek egingo dituen norbait aurkeztea.**

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasotzeko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020ko .....k .....

**O.E./ V°B°  
ALKATEAK/EL ALCALDE**

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2020.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**